LASARTE-ORIAKO UDALAREN EGUBERRIETAKO HAUR-PARKEA (EHP) EGITEKO KONTRATUA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA.

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Preskripzio tekniko hauen xedea Lasarte-Oriako Udaleko "EGUBERRIETAKO HAUR-PARKEKO" zerbitzuaren kondizioak deskribatzea da. Haur Parkea, ekintza kulturalek, ludikoek, parte hartzaileek eta kirol ekintzek osatzen dute, eta hartzaile nagusiak Lasarte-Oriako 14 urtetik beherako haur eta nerabeak izango dira.

Ez da aurreikusten loteetan zatikatzea.

Prestazioak komunztadura bat lortu behar du diseinuari, estiloari eta edukiei dagokienez, gai bakar batekin eta espazio jakin batean, eta, beraz, unitate gisa ulertu behar da. Kontratuaren xedearen barruan dauden hainbat prestazio independente izateak zaildu egingo luke ikuspegi teknikotik hori behar bezala gauzatzea.

2.- ZERBITZUAREN KONDIZIOEN DESKRIPZIOA

2.1.- Jardun-eremua
Zerbitzua Michelingo egoitzan eta pilotalekuko eta tenis zelaiaren esparruetan emango da, Geltoki kaleko 27.ean,

2.2.- Zerbitzuaren kondizioak

Emango den zerbitzua ondoko hau izango da:

2.2.1.- Haur- eta gazte-jendeari zuzendutako animazioko zerbitzuak ematea abenduaren 22tik urtarrillaren 5era, bi egun horiek ere kontatuta.
Abenduaren 24an eta 31n eta urtarrilaren 5ean goizez bakarrik egongo da zabalik. Abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita egongo da.

Jarduerak jolas-tankerakoak eta haurrak hezteko modukoak izango dira, eta haietan lehentasuna emango zaio solidaritateko, partizipazioko eta ez kontsumismoko balioak sustatzeari. Gutxienez,

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS QUE REGIRÁ LA CONTRATACIÓN, DEL SERVICIO DE PARQUE INFANTIL DE NAVIDAD (PIN) DEL AYUNTAMIENTO DE LASARTE-ORIA.

1.- OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del pliego de prescripciones técnicas es la descripción de las condiciones del servicio de "PARQUE INFANTIL DE NAVIDAD" del Ayuntamiento de Lasarte-Oria que consiste en el diseño y la realización de un programa de actividades culturales, deportivas y/o lúdicas de animación y de participación dirigidas principalmente al público infantil y juvenil de hasta 14 años de Lasarte-Oria.

No se prevé la subdivisión en lotes.

La prestación tiene que conseguir una concordancia en cuanto a diseño, estilo y contenidos en sintonía con una única temática y en un espacio determinado, por lo que hay que entenderla como una unidad. La realización independiente de las diversas prestaciones comprendidas en el objeto del contrato dificultaría la correcta ejecución del mismo desde el punto de vista técnico.

2.- DESCRIPCIÓN DE LAS CONDICIONES DEL SERVICIO

2.1.- Ámbito de actuación:
El servicio se desarrollará principalmente en las dependencias e instalaciones sitas en Geltoki kalea, 27 (Frontón y pista de tenis de Michelín)

2.2.- Condiciones del servicio

El Servicio que se prestará será el siguiente:

2.2.1.-Prestar los servicios de animación en el período comprendido desde el 22 de diciembre al 5 de enero, ambos inclusive. Estará dirigido al público infantil y juvenil.
El 24 y 31 de diciembre y el 5 de enero estará abierto únicamente en horario de mañana. El 25 de diciembre y el 1 de enero estará cerrado.

Las actividades serán de carácter lúdico y educativo, donde se primará el fomento de valores solidarios, participativos y de no consumismo.

dibertsitate kulturala landu eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duen ekintza bat txertatuko dute. Era berean, Haur Parkea bere osotasunean gai zehatz edo ildo nagusi bati buruzkoa izan beharko du, eta enpresa adjudikatzaileak egingo du horren proposamena.

Deberá incluir al menos una actividad que fomente la diversidad cultural y la igualdad entre mujeres y hombres. Así mismo, el PIN en su conjunto deberá girar en torno a una temática concreta o hilo conductor que deberá ser propuesto por la empresa licitadora.

2.2.2.- Instalazioa girotzeko eta dekoratzeko zerbitzua ematea, pilotalekuaren zorua babestea (40m x 20m), Michelin tenis zelaian 10m X 20 m gutxieneko karpa bat jartzea, jardueretarako begiraleak jartzea eta jardueretarako behar den azpiegitura muntatzea eta desmuntatzea, hala nola: oholtza, hesiak, mahaiak, aulkiak, muntadura elektrikoa, soinu-ekipoa, separazioko bionboak...

2.2.2.-Prestar el servicio de ambientación y decoración de la instalación, protección del piso del frontón (40m X 20m), instalar una carpa de 10m x 20m cómo mínimo en la pista de tenis Michelin, (monitores/as para las diversas actividades, así como montaje y desmontaje de la infraestructura necesaria para las actividades tales como: tablado, vallas, mesas, sillas, montaje eléctrico, equipo de sonido, biombos de separación...etc.

2.2.3.- Preskripzio teknikoen dokumentu honen Plano Eranskinetan enumeratzen diren egoitza eta instalazioei kontu egitea.

2.2.3.-El cuidado de las dependencias e instalaciones que se enumeran en los planos Anexos de este Pliego de Condiciones Técnicas.

2.2.4.- Bertara bildutakoak kontrolatzea eta segurtasuneko neurriak begiratzea.

2.2.4.- El control de los asistentes y la salvaguarda de las medidas de seguridad.

2.2.5.- Gabonetako Haur Parkera bertaratzen diren pertsonen sarrera-kontrol egokia egitea, baimendutako gehieneko aforoa (400 pertsona) eta arduradunak emandako jarraibideak uneoro errespeta daitezen. Edukieraren kontrol horretarako, enpresa esleipendunak helduei sarrerak kobratu ahal izango dizkie, pertsona bakoitzeko euro bateko prezioan.

Era berean, enpresa esleipendunak haur txikiekin doazen helduentzako aisialdi-gune bat ezarri eta kudeatu ahal izango du, bai eta "vending" zerbitzu bat ustiatu ere, non erabat debekatuta egongo baita alkohola eta tabakoa saltzea.

2.2.5.- Realizar el correcto control de entrada de las personas asistentes al Parque Infantil de Navidad, para que se respete en todo momento el aforo máximo permitido (400 personas) y de las indicaciones realizadas por el responsable. Para este control de aforo se permitirá a la empresa adjudicataria el cobro de las entradas, a los adultos al precio de un euro por persona,

La empresa adjudicataria podrá así mismo establecer y gestionar una zona de ocio para adultos que acudan con niños y niñas pequeños y explotar un servicio de “vending” en el que estará terminantemente prohibida la venta de alcohol y tabaco.

3.- ESLEIPENDUNAK ZERBITZUARI BURUZ DITUEN BETEBEHARRAK

3- OBLIGACIONES DEL ADJUDICATARIO.

Esleipendunak ondoko konpromiso hauek hartuko ditu:

El adjudicatario adquiere los siguientes compromisos:

3.1) Kopuruz eta gaitasun profesionalez aproposa den pertsonalarekin kontatzea, bai, halaber, zerbitzua betetzeko beharrezko diren ekipamendu

3.1) Contar con el personal idóneo en número y competencia profesional, así como con los equipos y materiales necesarios para el desempeño del

eta materialekin. Behar den garaian eta forman beteko ditu honako dokumentu honetan zehazten diren gutxieneko egitekoak. Gainera, zerbitzua abian jartzeko eta ustiatzeko beharrezko diren baldintza legal guztiak bete beharko ditu, eta behar bezalako segurtasuneko, efikaziako eta sanitateko kondizioetan eman beharko du zerbitzua.

3.2) Enpresa esleipendunak honako hauek bete beharko ditu: 10/2015 Legeak, abenduaren 23koak, Eusko Jaurlaritzako Ikuskizun Publiko eta Jolas Jarduerei buruzko Legearen Garapeneko Araudia (2019ko otsailaren 21eko EHAA, 2019ko otsailaren 21eko EHAA) onartzen duen 17/2015 Legeak, Eusko Jaurlaritzako Jolas Publiko eta Jolas Jardueren Legeak, ezarritako segurtasun eta edukiera baldintzak bete beharko ditu, eta egina edukiko du emergentziako eta ebakuazioko plana, zein ezagutu beharko baitu jardueraz arduratzen den pertsonal guztiak.

3.3)Aurrera eraman beharreko jardunak: Aurrera eraman beharreko lanak, orientazio moduan, jarraian zehazten diren baldintzetara egokituz egingo dira:

.-Muntatzea, desmuntatzea eta garbitzea: Enpresa esleipendunak jarri beharko dituen beharrezko material eta azpiegitura guztiak abenduaren 20 eta 21ean muntatuko dira; desmuntatu, berriz, urtarrilaren 6an, 09:00etatik aurrera edo urtarrillaren 7an 09:00etatik aurrera. Egunean behin garbituko dira EHPko espazioak, bai eta harako sarbideak ere. Jarduera bukatutakoan, material guztiak bilduko dira eta lekua zehatz-mehatz garbituko da.

.-Haur-parkea: abenduaren 22tik urtarrilaren 5era egingo da, eta publikoarentzako orduak 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara izango dira. Jarduerek kontuan izan beharko dituzte erabiltzaileen adin-tarteak:

Bebeteka: 0 eta 3 urte artekoak.
Haurren gunea: 3 eta 5 urte artekoak
Haurren gunea: 4 eta 10 urte artekoak
Gazteen gunea: 11 eta 14 urte artekoak.

Zerbitzuaren erabilera sustatzeko, erabiltzaile kopuru handienagatik, bai goizeko ordutegian, bai arratsaldeko ordutegian, ordu eta erdiko bi txanda

servicio, atender en tiempo y forma debidos la realización de las expresadas labores mínimas que se detallan en el presente pliego. Además deberá cumplir con todos los requisitos legales, necesarios para la iniciación y explotación del servicio y ejecutarlo en las debidas condiciones de seguridad, eficacia y salubridad.

3.2) La empresa adjudicataria deberá cumplir con los requisitos de seguridad y aforo establecidos en la Ley 10/2015 de 23 de Diciembre de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas del Gobierno Vasco, así como con el Decreto 17/2019, de 5 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas (BOPV de 21 de febrero de 2019) contando con un plan de emergencia y evacuación que será del conocimiento de todo el personal responsable de la actividad.

3.3) Actuaciones a desarrollar: El conjunto de trabajos a desarrollar, a modo orientativo, se realizarán ajustándose a las condiciones que a continuación se detallan:

.-Montaje, desmontaje y limpieza: El montaje de todos los materiales e infraestructuras necesarias que deberá aportar la empresa adjudicataria se realizará en los días 20 y 21 de diciembre, desmontando el día 6 de enero a partir de las 09:00 horas o 7 de enero a partir de las 09:00 horas. Diariamente se realizará una limpieza de los espacios del PIN, como de los accesos al mismo. A la finalización de la actividad se recogerán todos los materiales y se realizará una limpieza exhaustiva.

.-Parque Infantil: a desarrollar del 22 de diciembre al 5 de enero, en horario público de 11:00 a 14:00 horas y de 17:00 a 20:00 horas. Las actividades deberán tener en cuenta las diversas franjas de edad de los/las usuarios/as:

Bebeteca de 0 a 3 años
Zona infantil de 3 a 5 años
Zona infantil de 4 a 10 años
Zona juvenil de 11 a 14 años.

Al objeto de potenciar la utilización del servicio por el mayor número de usuarios, tanto en el horario de mañana como en el de tarde se

ezarriko dira

establecerán dos turnos de una hora y media cada uno.

Bestalde, jardueren edukiek eta xedeak neska-mutilen garapen integrala zainduko dute, solidaritatea, konpartitzearen garrantzia eta ez kontsumismoa bezalako balioak bultzatuz.

Así mismo los contenidos y el objeto de las actividades velarán por el desarrollo integral de los niños, potenciando valores como la solidaridad, la importancia de compartir y el no consumismo.

Era berean, erabiliko den espazioa elementu goxoekin dekoratu beharko du, proposatutako gai zehatza nabarmenduz, jarduera zuzentzen zaion kolektiboari erakargarri gertatzeko moduan.

A su vez, deberá decorar el espacio a utilizar con elementos cálidos y atractivos para el colectivo al que se dirige la actividad, primando la temática propuesta por cada año.

.-Lasarte-Oriako Udalak beretzat erreserbatzen du GKEren bati edo irabazteko asmorik gabeko kolektibo sozialen bati parkeko instalazioetan TABERNAKO zerbitzua ustiatzeko eskaini ahal izateko aukera.

.-El ayuntamiento de Lasarte-Oria, se reserva la posibilidad de poder ofrecer a alguna ONG o colectivo social sin ánimo de lucro la explotación de un servicio de BAR en las instalaciones del parque.

4- BALIAKIZUN PERTSONALAK.

4- RECURSOS HUMANOS

4.1)Enpresa esleipendunak beharrezko pertsona-ekipoa edukiko du, dokumentu honetan deskribaturiko zerbitzuak jarduerak dirauen denboran guztian eman ahal izateko. (Gutxienez 15 begirale)

4.1) La empresa adjudicataria contará con el equipo humano necesario para ejecutar los servicios descritos en este pliego durante toda la duración de la actividad con un mínimo de 15 monitores.

Azken urteetako batez besteko asistentziari erreparatuta, kalkuluen arabera, erabiltzaileak eguneko 484 haur eta 270 heldu izan dira.

Se estima, como dato orientativo en base a la media de asistencia de los últimos años, 484 usuarios infantiles/día y 270 adultos.

Profesionaltasunaren printzipioarekin bat etorriz, baldintza-agiri honetan deskribaturiko zerbitzuak emateko behar diren pertsona guztiak beharrezko titulazio akademiko ofiziala izango dute (aisialdiko begiralea edo baliokidea), edo, horren ezean, titulazioa nahitaezkoa ez den kasuetan, egiaztatu egin beharko du maila profesionala eta behar den esperientzia.

De acuerdo con el principio de profesionalidad, todo el personal necesario para ejecutar los servicios descritos en este pliego contará con la debida titulación académica oficial (monitor/a de tiempo libre o equivalente), o en su defecto, en aquellos casos en que la misma no sea obligatoria, deberá acreditar su nivel profesional y la experiencia necesaria.

Gainera, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoak ezartzen duen bezala, EHP an lan egingo duten begirale guztiek sexu-izaerako delituen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, horrelako deliturik ez dagoela egiaztatzeko.

Además, tal y como establece La Ley Orgánica de Protección Jurídica del menor, todos y cada uno de los monitores que trabajen en el PIN tendrán que presentar el Certificado de Delitos de Naturaleza sexual para acreditar la carencia de delitos de esta naturaleza

4.2) Zerbitzua segurtasuneko, efikaziako eta sanitateko kondizio egokietan emateko behar den pertsonalaz hornitua egongo da, erabiltzaileak inolako deserosotasunik eta berantzerik nozi ez

4.2) El servicio estará dotado del personal necesario para que su prestación se efectúe en las debidas condiciones de seguridad, eficacia y salubridad, evitando al usuario cualquier

dezan.

Adjudikazioak dirauen denbora guztian bermatu beharko da zerbitzua, eta gaixoaldi, istripu, oporraldi eta abarrengatik gerta daitezkeen hutsuneak ordezkoekin bete beharko dira.

4.3) Kontratuaren xedeko zerbitzuak emango dituen pertsonalak Segurantza Sozialaren Erregimen Orokorrean sarturik egon beharko du.

Enpresa esleipendunak, Lasarte-Oriako Udalak hala eskatutakoan, kontratuaren xedeko zerbitzuak ematen dituen pertsonalaren hizkuntza, genero baldintzak eta TC inprimakien kopiak entregatuko dizkio, bai halaber pertsonalaren titulazioa akreditatzen duen dokumentazioa.

4.4)Esleipendunak eduki beharko duen ekipoak, gutxienez, pertsonal hau izango du:

a)Udalaren aurrean zerbitzuaren arduradun gisa jardungo duena, zeinen izendapena Udalari jakinarazi beharko baitzaio eta hark onartu beharko baitu. Haren erantzukizuna izango da ongi funtzionatzea mantendu beharreko instalazioek, zeinak honako baldintza-orri hauen Eranskinean baitatoz zehaztuak. Kontratuzko prestazio guztiak planifikatuko ditu eta kontrolatuko, eta era guztietako erabakiak eta xedapenak hartuko ditu, kontratataturiko zerbitzua ematea lortzeko.

b) Jardueretako pertsonala:

Eguberrietako haur-parkean aurrera eramateko planteaturiko jardueretarako kopuruz behar diren monitore guztiak edukiko ditu. Gutxienez begirale bat izango du aktibitate edo elementu ludiko bakoitzeko. (15 begirale gutxienez)

Baita ere eskaintzen duen antzerki musika edo animazioko programarako behar diren begiraleak izango ditu.

5- BALIAKIZUN MATERIALAK

5.1) Zerbitzua emateko behar diren ekipamenduak eta materialak, hala Nola aurrentzako jostailuak, puzgarriak, jolaserako materiala, moketak, oholtza, hesiak, mahaiak, aulkiak, soinu-

incomodidad o demora.

Deberá garantizarse el servicio durante toda la duración de la adjudicación, bajas por enfermedad, accidentes, vacaciones, etc. que tendrán las correspondientes sustituciones.

4.3) El personal que preste los servicios objeto del contrato deberá estar incluido en el Régimen General de la Seguridad Social.

La empresa adjudicataria entregará a solicitud del Ayuntamiento de Lasarte-Oria, copia de los TC del personal que preste los servicios objeto del contrato, así como documentación acreditativa de la titulación del personal y los requisitos lingüísticos y de género

4.4) El adjudicatario deberá disponer de un equipo que contendrá, como mínimo, el siguiente personal:

a) Un/a responsable del servicio frente al Ayuntamiento y cuyo nombramiento deberá ser comunicado y aceptado por éste. Será responsable del buen funcionamiento de las instalaciones a mantener, explicitadas en el Anexo de los presentes pliegos. Planificará y controlará todas las prestaciones contractuales, y tomará todo tipo de decisiones y disposiciones para la consecución de la prestación contratada.

b) Personal de actividades:

Contará en número con todos/as aquellos/as monitores/as que requieran las actividades planteadas para el desarrollo del Parque Infantil de Navidad. Contemplará como mínimo un/a monitor/a por cada actividad o elemento lúdico independiente.(15 monitores como mínimo)

Contará así mismo con el personal necesario de actividades de animación tanto teatrales o musicales que proponga

5- RECURSOS MATERIALES

5.1) Los equipos y materiales necesarios para el desempeño del servicio, como pueden ser juegos infantiles, hinchables, material lúdico, moquetas, tablado, vallas, mesas, sillas, equipo de sonido,

ekipamendua, etab., esleipendunaren kontura eta kargura izango dira, bai, halaber entretenimendu, kontserbazio eta mantenu gastuak, kontratuaren indarraldian zehar guztiz ongi funtziona dezaten. Udalak ulertuko du lizitatzaileak zerbitzua betetzeko nahikoa iritzi diola proposamenean eskainitako materialari, eta, horrela gertatzen ez bada, esleipendunak erosi beharko du, bere arrisku eta menturara, zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoa dena.

5.2) Enpresa esleipendunaren ardurapean uzten dira Baldintza Teknikoen Agiri honen Eranskinean enumeraturiko egoitzak.

Lizitatzaileek, beren proposamena aurkeztu aurretik, bisitatuak eta errebisatuak eduki beharko dituzte honako lizitazio honen xedeko eraikin eta instalazio guztiak, eta ezingo dira baliatu honako dokumentu honetan eta honen eranskinetan ematen diren datuen aldean izan daitezkeen diferentziez, kontratuko periodoan prezioa aldatzen saiatzeko. Obligazio hori ez betetzearen ondorioak esleipendunak hartuko ditu bere gain.

5.3.)Enpresa esleipendunak egungo egoeran onartzen ditu instalazio horiek, eta erabat ezagutzen ditu eraikinen izaera, kudeatzeko bere ardurapean jartzen zaizkion ondasun higigarriak, ekipamendu eta instalazio guztiak eta sarbideek betetzen dituzten kondizio partikularrak, eraikinen segurtasunari eta espezifikotasunari lotuak.

5.4.)Enpresa esleipenduna behartua egongo da, haren esku dauden baliakizun materialei dagokienez, ondoko konpromiso hauek betetzera:

5.4.1.-Mantentzioko konpromisoa: Honako prestazio hauek bermatu beharko ditu:

a) Garbiketako zerbitzua: erantsirik doan planoan seinalatutako egoitzena eta horietako instalazioena.
b) mantenu zerbitzua: Udalaren kontura izango da Eguberrietako haur-parkea bertan instalatuko den eraikinaren mantenua, betiere haren hondatzea ez bada gertatzen arduragabeki, neurrigabeki edo gaizki erabiltzeagatik.

c) Era berean, bermatu egin beharko du

etc., será de cuenta y cargo del adjudicatario, así como los gastos de entretenimiento, conservación y mantenimiento para su perfecto funcionamiento durante el período de vigencia del contrato. El Ayuntamiento entenderá que el material ofertado en la propuesta ha sido considerado por el licitador como suficiente para la realización del servicio, y de no resultar así, el adjudicatario deberá adquirir, a su riesgo y ventura, el necesario para su correcta prestación.

5.2) Se encomienda a la empresa adjudicataria las dependencias enumeradas en el anexo de este Pliego de Condiciones Técnicas.

Con carácter previo a la presentación de su propuesta, los licitadores deberán haber visitado y revisado todos los edificios, así como las instalaciones objeto de la presente licitación, no pudiendo prevalerse de posibles diferencias con los datos facilitados en el presente pliego y sus anexos, para pretender un cambio de precio durante el período contractual. Las consecuencias del incumplimiento de esta obligación serán asumidas por el adjudicatario.
5.3) La Empresa adjudicataria acepta dichas instalaciones en su estado actual y tiene completo conocimiento de la naturaleza de los edificios, todos los bienes muebles, los equipos e instalaciones cuya gestión le es encomendada y las condiciones particulares que reúnen los accesos, ligadas a la seguridad y a la especificidad de los edificios.
5.4) La empresa adjudicataria estará obligada a cumplir los siguientes compromisos respecto de los recursos materiales que se encuentran bajo su disposición:

5.4.1.-Compromiso de mantenimiento: Deberá asegurar las prestaciones siguientes:

a) Servicio de Limpieza: de las dependencias señaladas en el Plano Anexo y de sus instalaciones.

b) Servicio de Mantenimiento: El Ayuntamiento cubrirá el mantenimiento del edificio donde se instale el parque infantil de navidad, siempre y cuando el deterioro de éstas no se deba al descuido, abuso o mal uso de las mismas.

c) Asimismo deberá asegurar el aprovisionamiento

ekipamenduek funtzionatzeko eta zerbitzua emateko beharrezkoak diren kontsumigarrien, hornigaien, uniformeen (nahitaez jantzi beharrekoak) eta abarren hornikuntza.

**Uraren eta argindarraren hornidura: Udalaren kargura joango da, salbu eta, instalazioak arduragabeki, neurrigabeki edo gaizki erabiltzearen ondorioz, gehiegizko kontsumoa gertatzen bada, ezen-eta, kasu horretan, azken urteko batez besteko kontsumotik gorako soberakoa esleipendunaren kontura izango baita.

de aquellos consumibles, suministros, uniformes (que serán de uso obligado), etc. que sean necesarios para el funcionamiento de los equipos y para el desempeño del servicio.

** Aprovisionamiento de agua y luz: correrá a cargo del Ayuntamiento, salvo que se produzca un consumo excesivo debido al descuido, abuso o mal uso de las instalaciones, en cuyo caso el exceso sobre la media de consumo del último año será por cuenta del adjudicatario.

6-ZERBITZUAREN METODOLOGIAN ALDAKETAK EGITEA

Lasarte-Oriako Udalak, kontratista entzun ondoren, egokitzat jotzen dituen aldaketa guztiak sartu ahal izango ditu zerbitzua emateko ezarritako metodologian, betiere prestazioaren balorazio ekonomikoa mantenduz.

6- MODIFICACIONES EN LA METODOLOGIA DEL SERVICIO

El Ayuntamiento de Lasarte-Oria, previa audiencia del Contratista, podrá introducir cuantas modificaciones considere oportunas en la metodología establecida para la prestación del servicio, manteniendo en todo caso la valoración económica de la prestación.

7- KONTRATUAREN EJEKUZIOA

Eguberrietako Haur Parkearen exekuzio epea 20 egunekoa izango da, zerbitzua ematearen hasiera kontratuan azaltzen den egunetik kontatzen hasita.

7-EJECUCIÓN DEL CONTRATO

El plazo de ejecución total del Parque Infantil de Navidad será de 20 días, comenzando a contar a partir de la fecha en que se indique en el contrato como inicio de la prestación

8- AURREKONTUA

Gabonetako Haur Parkea kontratatzeko Kontratuaren gehienezko aurrekontua:

2021: **43.299,85** *euro,* BEZ-a barne.

8-PRESUPUESTO

El presupuesto máximo del contrato para la gestión del Parque de Navidad será de:

2021: **43.299,85** *euros 21% IVA incluido.*

ANEXO/ ERANSKINA

TXANDAKA IZANDAKO PARTE-HARTZEA
PARTICIPACIÓN POR TURNOS.

MEDIA USUARIOS (Del 22 al 31 de diciembre en los últimos años)
BATAZ BESTEKO ERABILTZAILE KOPURUA AZKEN URTEETAN (Abenduaren 22tik 31ra)

PIN

DÍA	goiza1 txanda		Goiza 2 txanda		arratsaldean 1 txanda		arratsaldean 2 txanda		Haur kopurua	Helduak denetara	guztira
	HAURRAK	HELDUAK	HAURRAK	HELDUAK	HAURRAK	HELDUAK	HAURRAK	HELDUAK			
22	109	59	46	16	176	67	86	33	417	175	592
23	118	58	30	21	222	100	189	116	559	295	854
24	121	62	26	13	0	0	0	0	147	75	222
26	150	80	26	19	210	102	202	125	588	326	914
27	190	121	23	14	189	111	210	112	612	358	970
28	199	96	149	48	207	106	210	106	765	356	1121
29	120	80	34	30	147	71	137	178	438	359	797
30	103	82	30	25	156	91	206	123	495	321	816
31	166	87	174	79	0	0	0	0	340	166	506
TOTAL	1276	725	538	265	1307	648	1240	793	**4.361,00**	**2.431,00**	**6.792,00**
MEDIA	141,8	80,6	59,8	29,4	186,7	92,6	177,1	113,3	484,6	270,1	754,7